



Arartekoaren Ebazpena, 2010eko martxoaren 23koa. Horren bidez, eskola kiroleko programen kirol jarduera jakinetan parte hartzen duten 14 urtetik beherako adingabeak identifikatzeko baliabide gisa NANA eskatzeari buruzko kexa-espedita bat amaitutzat eman da.

Aurrekariak

1. 2009/2010 denboraldian Bizkaiko Eskola Kiroleko Programaren araudia ematen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 119/2009 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutako betekizun batekin du zerikusia kexa honen zioak.

Honela dio 12. artikulua:

12. artikulua. –Errendimenduko lehiaketei eta/edo lehiaketa murriztuei buruzko berezitasunak

Gorago zehaztutakoez gainera, errendimenduko lehiaketetarako eta/edo lehiaketa murriztuetarako, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Horietan parte hartzen duten erakundeek, agiri bat aurkeztu beharko dute egiaztatzen duena erakundeak nahikoa kalitate duten instalazioak dituela, bai entrenamendu-saioak egiteko bai partidak jokatzeko. Lehiaketetarako araudi orokorrean ezarriko dira deialdian jasotako kirol bakoitzean eskatuko diren gutxiengoak.

Izena eman duten kirolariek honako agiri hauek erantsi beharko dizkiote izena emateko eskabideari:

a) Kirolariaren NANA (jatorrizkoa eta kopia).

b) Kirolariaren erroldatze-agiria.

c) Kirolariaren argazki digitala, duela gutxi egina.

Ezarpen horri dagokionez, kexan aipatu zen 14 urtetik beherako adingabeek nortasun agiri nazionala aurkeztu behar zutela.

2. Gure eskaerari erantzunez, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak NANA beste agiri batzuen ordean –adibidez, jaiotza ziurtagiria- zergatik eskatzen duen azaldu zigun. Jaiotza ziurtagiriak argazkirik ez duenez, parte hartzaileak identifikatzea zailagoa da.





Ikuskariek, federazioek, klubek eta administrazioak eskola kiroltako programak betetzen direla kontrolatzeko bitarteko egokiak behar dituzte. Hala, eskola kiroltako fitxek behar bezalako jarraipena bermatzen dute, lehiaketetako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Horrez gain, adierazi zuen, baldintza horiek aintzat hartuta, beharrezkoa zela eskolako fitxek kirolariaren datuak behar bezala bil zitzatela. Adibidez, bizi den udalerrria, klubaren udalerriko biztanle kopuruaren arabera eskatzen diren betekizunak direla eta. Hala, 3.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako klubetan, herrian bizi diren kirolariak ezin dira % 50 baino gutxiago izan. Aldiz, 3.000 biztanle baino gutxiago baditu, kirolari guztiak herrikoak izan beharko dira.

3. Erantzun hori aztertu ondoren, foru aldundiari honako gogoeta hauek helarazi dizkiogu:

Kexa honen oinarria honako honetan dago: NANaren arauketak xedatzen du edonork eskura dezakeela. Aldi berean, ordea, ezartzen du 14 urtetik aurrera dela nahitaezkoa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2009 Foru Dekretuak ezarritako NAN eskakizunarekin bateragarria izan daiteke aipatu obligaziozkotasunik eza.

Bateragarritasun hori lor daiteke, dekretuan ezarritakoa horrela interpretatzen bada: agiri hori eskatuko da, soilik beste bitartekoren baten bidez identifikazioa bermatzen ez denean. Bitarteko horiek zein izan daitezkeen aurreratu gabe, bideragarria da pentsatzea adingabe batzuk eskolako txartela, garraio txartela, kirol patronatukoa eta halako agiriak izan ditzaketela.

Aurrekoa oinarri hartuta, 14 urtetik beherako adingabeek kirol jardueretan izena ematen dutenean NANA ez den beste bitarteko batzuekin identifikatzeko aukera onar dadila iradokitzen dugu, betiere, aipatu bitartekoak baldin badituzte.

4. Iradokizun hori aztertzerakoan, foru aldundiak identifikazio bakarraren beharra azpimarratu du -NAN bidez- eta, horren harira, adierazi du ez dela beharrezkoa Bizkaiko eskola kiroltako programetan parte hartzeko. E ligetan bakarrik eskatzen da, erredimenduzkoak edota mugatuak izateagatik. Liga horietan lehiakortasuna eskola kiroltako gainontzeko programetan baino handiagoa da eta lehiaketa bermatu behar da, xedatutako printzipioekin bat.

Kexa eragin zuen gaiari dagokionez, adingabeak behin-behinean parte har dezala onartu du foru aldundiak eta, horren ildotik, NANA izapide zezan epea luzatu du.





Gogoetak

1. 119/2009 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako NAN eskakizuna ez da desegokia, 14 urtetik gorako ikasleek eskola kirol jardueretan parte hartzen baitute. Ordea, eskakizun horrek zalantzak mahaigaineratu ditzake, programan parte hartzen dutenek adin hori ez dutenean.

Zalantza horien abiapuntua hauxe da: NANaren arauketak xedatzen du 14 urtetik aurrera bakarrik dela nahitaezkoa eta, beraz, 14 urtetik beherakoek beste modu batean identifikatzeko aukera dutela.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 119/2009 Foru Dekretuan xedatutako baldintzen betetzea egiaztatzeko bidea ematen duen identifikazioaren beharraren inguruan ez daukagu zalantzarik.

Identifikazio horretarako, aipatu foru arauko 12. artikulua ezartzen du betekizun batzuk bete beharko direla, horien artean NANA aurkeztea. Hori da, hain zuzen, zalantzan jarritako betekizuna, hartzaile batzuek ez baitute zertan eduki araudia aintzat hartuta.

Oro har, gerta daiteke 14 urtetik beherako adingabeek NANA edukitzea zenbait arrazoiengatik. Ordea, egoera hori ohikoa izatea ez zaigu iruditzen arrazoi nahikoa foru arauko 12. artikulua xedatutako betekizuna onartzeko.

3. Eskakizunaren oinarria xedean bertan topatu behar dugu eta hori lortzeko betekizun bat ezartzen da. Alegia, ustezko titularra edo interesduna identifikatu edo egiaztatzea.

Ikuspegi horretatik, uste dugu NANaren eskakizuna eta beste modu batean identifika daitezkeen 14 urtetik beherakoak direnen obligaziozkotasunik eza bateragarriak izan daitezkeela.

Aurrekarietan aipatu dugun moduan, gure iritziz, bateragarritasun hori lor daiteke. 119/2009 Foru Dekretuaren 12. artikuluko ezarpena honela ulertzen bada: hizpide dugun nortasun agiria beste bitartekoren baten bidez identifikazioa bermatzen ez denean bakarrik eskatzea. Gerta daiteke adingabeek baliabide edo bitarteko horiek ez edukitzea edo horiek nahikoak ez izatea baina ezin dira alde batera utzi.





4. NANA identifikatzeko bitarteko egokia da, baina ez da beharrezkoa. Identifikazioari buruzko printzipio hori bera eskola kiroletako beste arlo batzuetan aurki dezakegu: halaxe dio Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 1/1992 Lege Organikoak. Horren 20.2 artikulua, identifikazioari buruz, hasieran hauxe dio: "Edozein bitartekoren bidez identifikatzea ez lortuz gero..."

Identifikatzeko beste aukera batzuen atea irekitzeko egokitasuna babesteko, Instrukzioko 9. zk.ko Epaitegiak ekainaren 27ko 296/2000 zk.ko Epaian (ARP\2000\2534) nortasun agiri nazioalana ez zen beste identifikazio bitarteko bat nola baloratu zuen aipatuko dugu. Lehenengo oinarriak hauxe dio:

Pues bien, la Ley Orgánica 1/1992 (RCL 1992, 421) sobre Protección de la Seguridad Ciudadana, establece en su art. 9 que el Documento Nacional de Identidad tiene por sí solo suficientemente valor para la acreditación de la identidad de las personas; lo que no excluye otros medios de identificación, como se desprende del art. 20.2 del citado Texto Legal («de no lograrse la identificación por cualquier medio...»). Por tanto, dentro del ámbito de aplicación de esta Ley, será posible acreditar la identidad por medio de otros documentos, como carnet profesional, carnet de estudiante, permiso de conducir, pasaporte, verbalmente... En el caso de autos, está probado que el acusado se identificó mediante un carnet, que si bien no era el Documento Nacional de Identidad, contenía su fotografía, nombre y apellidos, datos de identidad que eran ciertos, como se constató por la Ertzaintza a la vista del DNI del acusado, y así se refleja en el folio 1 del atestado, por lo que se considera probado que el acusado no desobedeció la orden de los Ertzainas cuando le pidieron que se identificase y, en consecuencia, no incurrió en la conducta tipificada en el art. 634 del Código Penal (RCL 1995, 3170 y RCL 1996, 777) por lo que debe ser absuelto.

5. Lehen 14 urtetik beherako adingabeek izan ditzaketen agiri batzuk adibide gisa aipatu ditugun arren (eskolako txartela, garraio txartela, kirol patronatuko txartela), ezin dugu esan identifikaziorako baliabide nahikotzat jo behar direnik. Ordea, uste dugu hasieratik ezin dela aukera hori baztertu, fidagarriak ez izan arren, nortasunari buruzko betekizunak ez diren beste betekizun batzuei dagokienez -adibidez, bizilekua-

Eskola kiroleko fitxek lehiaketetako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar bezalako jarraipena bermatzen dute. Baldintza horietako batek bizilekuarekin dauka zerikusia, 2. aurrekarian jaso den moduan.





Betekizun hori eta kirolariaren identifikazioa desberdinak dira. Horregatik, eta bizilekuaren egiaztapena beste baliabide baten bitartez xedatuta dagoela – errolatze ziurtagiria- aintzat hartuta (113/2009 Foru Dekretuko 12. artikulua), nortasun agiri nazionaletik edo aipatu ditugun beste identifikazio agirietatik berezita dagoela ulertu behar dugu.

Aurrekoarekin bat etorritz, honako ondorio hau atera dugu

Ondorioa

Eskola kiroleko programen kirol jardueretan izena ematerakoan, 14 urtetik beherako adingabeak NANA ez den beste bitarteko baten bidez identifikatzeko aukera balora dadila, betiere, nahikotzat jo daitezkeen beste baliabideak baldin badituzte.

